



Arartekoaren 2019R-1735-17 Ebazpena, 2019ko uztailaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena, prozedura iraungi egin baita.

Aurrekariak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular zen herritar batek Arartekoarengana jo zuen, eta haren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek emandako ebazpen batekin.

Zehazki, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedura bat abiarazi zuen Lanbidek 2016ko urriaren 3an, eta erakunde horretako zuzendari nagusiaren 2017ko maiatzaren 29ko ebazpen bidez amaitu zen. Guztira, 2.991,67 euro erreklamatu zizkion interesdunari, etxebizitzarako prestazio osagarria zela-eta.

Hona hemen ebazpenean adierazitako arrazoia:

- *"Osatzen duen dbea eten/amaitu da."*

Halaber, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenak ezarri zuen herritar horri 224,40 euro konpentsatu behar zitzaizkiola, hilean zorra erabat kitatu arte.

2. Kexagileak ez zekien zer arrazoik eragin zuen erabaki hori hartzea, eta, horrez gain, zailtasun handiak zituen eguneroko oinarrizko premiak asetzeko. Hortaz, Lanbideren bulegora jo zuen, behar zuen informazioa eskuratze aldera.

Horri erantzunez, ahoz jakinarazi zioten bere espedientea berrikusteko prozedura abiarazi eta etxebizitzarako prestazio osagarria zela-eta ordaindu zizkieten zenbatekoak itzul zitzala erreklamatu ziotela, hain zuzen ere, ez zuelako jakinarazi etxez aldatu eta errentamendu-araubideko babes publikoko etxebizitza batera joan zela bizitzera.

Kexagilea ez zetorren bat helarazitako gogoetekin, eta, beraz, aukerako berraztertze errekurtsua jarri zuen 2017ko ekainaren 14an. Bere idazkian azaldu zuen etxez aldatu zela jakinarazi zuela Lanbideren bulegoan. Zehazki, adierazi zuen 2013ko martxoaren 7an egin zuela lehenengo komunikazioa. Horrez gain, 2013ko ekainaren 11n, esleitu zioten babes publikoko etxebizitzaren errolda-ziurtagiria eta errentamendu-kontratua aurkeztu zituen.

Arartekoaren aurrean azaldutako egitateak egiaztatze aldera, Lanbidek egindako ziurtagiria aurkeztu zuen kexagileak; han, informazio hau ageri zen:

- *"Cambia de domicilio y aporta lo siguiente:*
 - o *Volante de empadronamiento.*





- *Contrato de Etxebizitzak*
- *Recibos de febrero, marzo, abril y mayo."*

Azkenik, azaldu zuen egoera ekonomiko eta pertsonal zailean zegoela. Zehazki, Lanbideri adierazi zion guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen zuela, eta desgaitasuna zuen adingabe bat zuela bere ardurapean. Halaber, berriz ere nabarmendu zuen zailtasunak zituela hilero 224,40 euro ordaintzeko, eta 30 euroko kuota konpentsa ziezaiotela eskatu zuen.

3. Azaldutako kexa behar bezala izapidetze aldera, 2017ko uztailaren 7an, Arartekoak lankidetzaren eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Horren bidez, eskatu genion azaldu zezala zergatik ezarri zion Lanbidek interesdunari etxebizitzarako prestazio osagarria zela-eta jaso zituen 2.991,67 euro itzultzeko betebeharra.

Gainera, Arartekoak alde aurretiko zenbait gogoeta helarazi zizkion sail horri, ebazpena arrazoitu ez izanaren inguruan, eta aukerako berraztertze errekurtsoari erantzuteko orduan izandako atzerapenari buruz.

4. Ez genuen erantzunik jaso hasierako informazio-eskaera horri lotuta, eta, hortaz, 2017ko urriaren 19an, Arartekoak errekerimendua egin zion sail horri, eta berariaz erantzun behar zuela gogorarazi zion.
5. Lankidetzaren eskaerari erantzunez, 2017ko urriaren 20an, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso genuen erakunde honen erregistroan. Horren bitartez, erakunde horrek Arartekoari jakinarazi zion eutsi egingo ziola interesdunari prestazioak zirela-eta jaso behar ez zituela jasotako 2.991,67 euro itzul zitzala exijitzeko erabakiari.

Baliatutako arrazoiei zegokienez, Lanbideko zuzendari nagusiak honako hau adierazi zion Arartekoari: *" akats horiek gaindituzat jo daitezke, erreklamatzailerak zentzuz jokotuta LANBIDEren bere bulegora jo baitzuen"*

Amaitzeko, azaldu zuen kexagileak *"Soil-soilik 2017/06/14ak eta jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoaren zati moduan"* gizarte-kuota ezartzeko eskatu zuen. "

6. Lanbidek igorritako informazioa aztertu zuen Arartekoak, eta, horren ondoren, 2017ko azaroaren 14an, beste lankidetzaren eskaera bat bidali zion. Izan ere, Lanbideko zuzendari nagusiak egindako gogoeten ondorioz, Arartekoak egiaztatu zuen 6 hilabete baino gehiago igaro zirela bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko prozedura abiarazi zenetik —2016ko urriaren 3a— haren azken ebazpena eman arte —2017ko maiatzaren 29a—.

Hortaz, Arartekoak beste gogoeta batzuk egin zituen, eta argudiatu zuen harrezkero litekeena zela zenbatekoak erreklamatzeko prozedura iraungi izana.





7. Bigarren lankidetzeta-eskaera horri erantzun ez zitzaiola ikusita, Arartekoak berriz ere eskatu zion laguntza Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

Azkenik, 2019ko apirilaren 8an, bigarren informazio-eskaera egin zenetik urtebete baino luzeago igaroa zela, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso genuen Arartekoaren sarrera-erregistroan; han, bere erabakia berretsi zuen zuzendariak, eta adierazi zuen kexagileak, azkenean, erreklamatutako zenbatekoak osoki ordaindu zituela.

Azkenik, prozedura iraungitzeari dagokionez, Lanbidek haxe jakinarazi dio Arartekoari:

- *"(...) itzulketa-prozedura irmo bihurtu zen, interesdunak ez baitzuen berori iraungitzea eskatu; dena dela, ez zukeen inolako eraginik izango, jakinarazpenaren unean kopuruak ez baitzeuden preskribatuta."*

8. Beraz, uste dugunez beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Eskidearena) 35.1.a) artikulua honako hau agintzen du:

- *"Arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz:*

Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak".

Kasu honetan, Arartekoaren iritziz, ez zen nahikoa "diru-sarrerak bermatzeko errenta osagarria eten/iraungi" ziotela, eta, horren ondorioz, zenbatekoak erreklamatu zizkiotela aipatze hutsa.

Kexagileak ez zuen beste informaziorik jaso aipamen labur horrez gain, eta, hortaz, ez zekien zergatik erreklamatu ari zitzaiotzen 2.991,67 euro itzul zitzaizkion. Behin eta berriro jo behar izan zuen Lanbideren bulegora erabaki horren arrazoiari berri izateko.

Arartekoak askotan adierazi izan du ebazpenak hobeto arrazoitu beharra dagoela, labur aipatuz ebazpen horiek oinarri dituzten egitateak eta zuzenbideko oinarriak; hain zuzen ere, hori aipatu du bai kexa-espeditentek izapidetzean, bai 2013ko diagnostikoan, bai [Arartekoaren urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorrean](#)¹.

¹ **Arartekoa.** Arartekoaren 1/2014 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 20koa. Lanbidek arrazoitu egin behar ditu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak. [Linean eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3269_1.pdf



Gomendio horretan aztertu zen ebazpenetan ageri diren arazoiketak garrantzitsuak direla administrazio onaren printzipioa bermatzeko; horrek esan nahi du ezinbestekoa dela eskubideak mugatzen dituzten ebazpenetan egitateak behar bezala azaltzea, erabilitako legezko oinarria adieraztea eta erraz ulertzeko moduko informazio nahikoa ematea, prestazio horiek gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak jasotzen dituzte-eta.

Hori guztia dela eta, Arartekoak berriz ere dio ebazpenak behar bezala arazoitu beharra dagoela, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrei behar den informazioa helarazteko.

2. Jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko prozedura abiarazi zenetik behin betiko ebazpena eman arte igarotako denbora dela-eta, Arartekoak egiaztatu du 6 hilabete baino gehiago igaro zirela prozedura abiarazi zenetik behin betiko ebazpena eman arte. Beraz, iraungia zegokeen prozedura. Horrenbestez, balio gabetzat jo beharko zatekeen ondoren emandako ebazpena.
3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 21.1. artikulua ezartzen du administrazioa behartua dagoela ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Artikulu horren 2. apartatuak dio ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea, dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa izango dela. Epe hori ezin da sei hilabete baino gehiago izan, non eta lege-mailako arau batek ez duen handiagoa ezartzen edo Europar Batasuneko zuzenbidean ez den hala aurreikusten.

Horri lotuta, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 58. artikulua haxe dio:

- *"Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaionetik".*

Nolanahi ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 25.1.b) artikuluaekin bat, ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ez du administrazioa salbuesten ebazteko betebeharrak legezkotik, eta hauek izango dira ondorioak:

- *"Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, iraungi egingo da prozedura. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeko aginduko du, eta 95. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu".*

Kexa-espedita honetan, Lanbidek jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko prozedura abiarazi zuen 2016ko urriaren 3ko ebazpen bidez, baina 2017ko maiatzaren 29ra arte (handik 7 hilabetera) ez zuen ebazpena jakinarazi.



Finean, Lanbideko zuzendari nagusiak erabaki zuen interesdunak 2.991,67 euro itzuli behar zituela. Aitzitik, araudiak ezartzen du prestazioak itzultzeko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabete dela, prozedura abiarazten denetik.

4. Administrazio-prozedurak iraungitzearen eraentza juridikoa segurtasun juridikoaren, arbitrariotasun-debekuaren eta benetako babes judizialaren printzipioetan oinarritzen da. Izan ere, prozesuan bidegabeko luzamenik ez izateko eskubidea ematen die herritarrei, kargak ezartzen edo eskubideak mugatzen dituen ebazpenik eman ez dadin hura espero daitekeen zentzuzko epetik kanpo, hau da, prozedurak gehienez ere iraun dezakeen epetik kanpo². Horiek horrela, jo beharra dago, prozedura iraungi ondoren administrazioak auziaren funtsari buruzko ebazpena ematen baldin badu, baliogabetu egingo dela hura³.

Prozedura iraungitzeak, finean, eragotzi egiten du espedientearen izapideekin jarraitzea, eta, beraz, jardundakoa artxibatu egin behar da halabeharrez.

Arartekoaren iritziz, Lanbideko zuzendari nagusiak automatikoki iraungitzat jo beharko zukeen prozedura, ez baitzuen zertan alde aurretik errekerimendurik egin. Izan ere, 7 hilabete baino gehiago igaro ziren prozedura abiarazi zenetik hura amaitu arte.

Horiek horrela, behar bezala egiaztatu da Lanbidek ez zuela erreklamazio hori egiteko aukera ematen zuen baliozko prozedurarik baliatu.

5. Gainera, Lanbidek bere erantzunean aipatu ez bezala, Arartekoak egiaztatu du ezin zela prestazioak erreklamatzeko beste prozedura bat abiarazi, preskribatu egin zelako haiek erreklamatzeko akzioa.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 56. artikulua honako hau ezartzen du:

- *"Jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei eta obligazioei aplikatu beharreko araudiaren araberakoa izango da betebeharraren preskripzioa".*

Horren harira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena) 44. artikulua hau xedatzen du preskripzioari dagokionez:

² **Auzitegi Gorena.** Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 2010eko uztailaren 12koa. [Linean eskuragarri]: [ECLI:ES:TS:2010:4314](https://www.ecli.es/TS/2010/4314).

³ **Auzitegi Gorena.** Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaia, 2004ko ekainaren 28koa. [Linean eskuragarri]: [ECLI:ES:TS:2004:4540](https://www.ecli.es/TS/2004/4540).



“1.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak preskribigarriak dira. Preskripzio-epeak zehazteko, bete beharrekoak izango dira eskubide horietako bakoitzari zuzen-zuzenean edo zeharka espezifikoki ezar dakizkiokeen xedapenak.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako xedapen horietakorik ez badago, lau urteren buruan iraungiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomiadunek dauzkaten eskubide hauek:

a) Izaera publikoko eskubideak aitortzeko edo bere alde likidatzeko eskubidea, eskubide hori erabili zitekeen egunetik kontatzen hasita. Aitorpen edo likidazio hori egiteko beharrezkoa baldin bada aipatutako entitateen aurrean formulatutako adierazpena, orduan preskripzio-epea ez da kontatzen hasiko harik eta formulazio hori baldintza guztiak betez egiten den arte.

b) Aitortutako edo likidatutako izaera publikoko kredituak kobratzeko eskubidea, horien jakinarazpena eraginkorra den egunetik kontatuta edo, jakinarazpena nahitaezkoa ez bada, epemugatik kontatuta⁴.

Arartekoak egiaztatu du kexagileak jakinarazi zuela etxez aldatu zela, lehenik, 2013ko martxoaren 7an, eta, horren ondoren, 2013ko ekainaren 11n. Gainera, egiaztatu dugu Lanbideko zuzendariak herritar horri etxebizitzarako prestazio osagarria eten ziola 2014ko otsailaren 22ko ebazpen bidez.

Bi kasuetan, badirudi 4 urteko epea igaro bazen ere, Lanbideko zuzendari nagusiak ez zituela abiarazi kexagileari ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko beharrezkoak ziren ekintzak, legeak exijitutako bermeekin.

6. Gainera, ez da alde batera utzi behar erreklamaturako zorraren zati handi bat sortu zela herritar horrek etxez aldatu zela jakinaraztearen ondorioz. 2013ko ekainaren 11n jakinarazi zuen, zehazki, babes publikoko etxebizitza bat errentamendu-araubidean esleitu ziotela. Horretarako, errentamendu-kontratua eta errolda-ziurtagiri berria aurkeztu zituen. Aitzitik, Lanbidek 2014ko urtarrilera arte jarraitu zuen herritar horri etxebizitzarako prestazio osagarria ordaintzen.

Arartekoak kontu horren inguruko bere iritzia azaltzeko aukera izan du [Arartekoaren 2019R-2298-17 Ebazpenean](#), [2019ko otsailaren 26koan](#)⁵ eta [2019R-2294-17 Ebazpenean](#), [2019ko otsailaren 28koan](#)⁶.

⁴ Letra lodia Arartekoak jarri du

⁵ **Arartekoa.** Arartekoaren 2019R-2298-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 26koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati jaso behar ez zituela jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena. [Linean eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4681_1.pdf

⁶ **Arartekoa.** Arartekoaren 2019R-2294-17 Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati jaso behar ez zituela jasotako prestazio batzuk itzultzeko betebeharra ezartzen dion ebazpena. [Linean eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4683_1.pdf



Giza Eskubideen Europako Auzitegiak [Čakarević Kroaziaren aurka](#)⁷ kasuari buruz emandako epaiaren inguruko jurisprudentiari argi eta garbi helduz, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari adierazi zion jarduketak muturrera eraman behar zituela baldin eta eskubide subjektiboaren titularrak betebeharrak bete bazituen jasotzen zuen zenbatekoari eragin ziezaiokeen edozein aldaketa jakinaraziz.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio ondorerik gabe utz dezala interesdunari 2.991,67 euro itzultzeko betebeharra ezarri dion ebazpena, Lanbideko zuzendari nagusiarena, egiaztatu baita eskakizun hori iraungitako administrazio-prozedura bat izapidetzearen ondorioz egin zaiola, eta, beraz, prozedurak ez duela balio ordaindutako prestazio ekonomikoak erreklamatzeko.

⁷ **Giza Eskubideen Europako Auzitegia**. 2018ko apirilaren 26ko epaia. Čakarević Kroaziaren aurka kasua. *Application no.* [48921/13](http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-182445). [Linean eskuragarri]: <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-182445>